



ARESOKO UDALA

67/2018 ALKATE EBAZPENA

Areson 2018ko abenduaren 19an

**GAIA: ARESOKO UDALEKO IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAILE LANPOSTUA
DEBORALDI BATEAN ETA KONTRATU ADMINISTRATIBO IZAERADUN HAUTAGAIEN
ZERRENDA OSATZEKO DEIALDIA**

2. AKTA: HAUTAGAIEN BEHIN BETIKO ONARPENA

UR ALGUERO CHIVITE, Udalerrri honetako Alkate buruak, honen bitartez

ADIERAZTEN DU:

Azaroaren 27ko 65/2018ko Alkate Ebazpenak, "Idazkari- kontu hartzaile lanpostua aldi baterako eta kontratu administratibo izaeradun hautagaien zerrenda osatzeko deialdiko oinarriak" onartu zituen.

Abenduaren 14ko 66/2018 Alkate Ebazpenarekin, izena emandako hautagai guztiak behin behinean onartuak izan ziren.

Ebazpen horretan, hautagaietako batek euskara ezagutza ziurtatzeko euskara froga egin behar zuela adierazi zen, behin betikoan onartua izan zedin.

Euskara froga egiteko hitzordua, 2018ko abenduaren 18an, 9:00an Euskara bidean izango zela jakinarazi zitzaion interesdunari, baina hau ez zen bertaratu. Beraz, Amaia Ilundain hautagaiak ez du ziurtatu deialdiko 2.1.e) euskara gaitasun C1 maila duenik eta ezin da deialdian onartua izan.

Azaldutakoa aintzat hartuta

EBAZTEN DU:**LEHENENGO: BEHIN BETIKO ONARTUTAKO HAUTAGAIEN ZERRENDA**

Honako hautagaiak izan dira onartuak:

HAUTAGAIA		EGOERA
Sandra	Martinez Gutiérrez	Onartua behin betiko
Zunbeltz	Larrea Azpuri	Onartua behin betiko



ARESOko UDALA

BIGARRENA: BEHIN BETIKOZ AZTERTUTAKO HAUTAGAIEN ZERRENDAA

HAUTAGAIA		EGOERA
Amaia	Ilundain	Baztertua behin betikoz

Euskara maila nahikoa ziurtatu ez izanagatik, oinarrietako 2.1.e atalean jasotako parte hartzeko baldintza, baztertua izan da.

HIRUGARRENA: OPOSIZIO FROGAREN DATA

Oposizio ataleko froga teoriko eta praktikoa, **abenduaren 20an egingo dira, goizeko 9:00etan hasita Iruñeako Kondestable Jauregiko 5. Aretoan** (Kale Nagusia 2, 2. Solairua, Iruñea, 31001).

LAUGARRENA: JAKINARAZPENA

Ebazpen hau interesdunei jakinarazi, Udaletxeko iragarki oholean iragarri eta www.areso.eus webgunean argitaratu.

Areson, 2018ko abenduaren 19an.



Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertze errekursoa, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.